

BESTELAKO XEDAPENAK

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA

5190

EBAZPENA, 2015eko abenduaren 3koa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariarena, lankidetzak-erakundeei laguntzak emateko dena, 2015. urterako genero-berdintasunaren aldeko antolamendu-aldaketarako prozesuak sustatzeko.

Azaroaren 25eko 197/2008 Dekretuak (2008ko abenduaren 9ko EHAA, 235. zk.) lankidetzak-erakundeei eman beharreko laguntzak arautzen ditu, erakundeetan genero-berdintasunaren aldeko erakunde-aldaketako prozesuak sustatzeko.

Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiaren 2015eko irailaren 1eko Ebazpenaren bidez (2015-09-11ko EHAA, 173. zk.), lankidetzak-entitateei laguntzak emateko deialdia egin zen, 2015. urterako genero-berdintasunaren aldeko antolamendu-aldaketarako prozesuak sustatze aldera.

Balorazio-batzordeak laguntzak emateko egin duen proposamena ikusita (batzorde hori horretarako sortu zen deialdiari buruzko ebazpenaren 5. artikuluan), Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Koordinazio Teknikorako Zerbitzuak diru-laguntzen eskaeren analisi teknikoa eta balorazioa egin eta gero, eta Kontseilu Errektoreari 2015eko abenduaren 2ko bileran horren berri emanda, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiaren 2015eko irailaren 1eko Ebazpenaren bidez deitutako laguntzak esleitzea ebazpen honetako I. eranskinean jasotako erakundeei, eranskinean aipatutako zenbatekoan eta eran.

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkez dakioko Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako lehendakariari, hila-beteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Gora jotzeko errekurtsioa jarri eta hiru hilabete igaro ondoren ebazpenik eman ez bada, ezetsi egin dela ulertuko da, eta administrazioarekiko auzietako bidea zabalik geratuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko abenduaren 3a.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria,
PAUL ORTEGA ETCHEVERRY.

2015eko abenduaren 7a, astelehena

I. ERANSKINA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ESKAERAK - GBA-2015

Espedientea	Erakunde eskatzailea	Helburua	Diru-laguntza
GBA-2015BA/0002	KCD- Kultura Communication y Desarrollo	Diagnóstico participativo de género y Plan de Acción estratégico pro-equidad	26.400,00 €
GBA-2015BA/0003	Asociación Euskadi-Cuba	Diagnóstico participativo de género y Plan de Acción estratégico pro-equidad	26.400,00 €
GBA-2015BA/0004	SOS Racismo Gipuzkoa	Diagnóstico participativo de género y Plan de Acción estratégico pro-equidad	25.680,00 €
GBA-2015BA/0005	Servicio de Solidaridad San Viator de Euskalherria –SERSO–	Diagnóstico participativo de género y Plan de Acción estratégico pro-equidad	26.400,00 €
GBA-2015BA/0001	Asociación REAS Euskadi - Red de Economía Alternativa y Solidaria	Diagnóstico participativo de género y Plan de Acción estratégico pro-equidad	26.400,00 €